

## EUSKARALDIAREN BIGARREN EDIZIOA UDALEAN ETA UDALERRIAN SUSTATZEKO ERAKUNDE-ADIERAZPENA

Euskal Herri osoko ehunka herritako milaka lagunek (225.000) parte hartu zuten, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, Euskaraldiaren lehen edizioan, erakunde publikoen zein gizarte eragileen bultzadaz.

Elgoibarren ere, 1.804 herritarrek hartu zuten parte zuzenean ekimenean "ahobizi" edo "belarriprest" gisa, eta herriko entitate ugari (52 entitate) izan ziren sustatzaile.

Lehenengo edizioaren balorazio positiboa egin zen, bai parte-hartzearen aldetik eta baita ekimenak erabileran izan zuen eraginaren aldetik ere.

Une honetan, abian dira Euskaraldiaren bigarren edizioa antolatzeko lanak, berrikuntza nagusi batekin: norbanakoez gain, entitateek ere zuzenean parte hartu ahal izango dute, entitate barruan "Ariguneak" sortzea bultzatuz.

Euskararen alde egotetik euskaraz gehiago egitera pasatzeko ariketa soziala da Euskaraldia. Hain zuzen ere, 'Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan' du leloa bigarren edizioak. Eta euskaraz gehiago egiteko, funtsezkotzat jotzen da taldetan ere euskaraz egitea. Hau da, taldeek berebiziko garrantzia dute norbanakoen hizkuntz hautuetan eta norbanakoen jardunean. Are gehiago kontuan izanda eguneko ordu asko ematen ditugula taldetan: lantokietan, eskoletan, elkarteetan, taberna edo dendetan... Horregatik guztiagatik, norbanakook geure kasa ez ezik, entitateetan ere egingo dugu Euskaraldia; gure egunerokoan parte hartzen dugun guneetan, entitateetako ariguneetan.

## DECLARACIÓN INSTITUCIONAL PARA EL IMPULSO DE LA SEGUNDA EDICIÓN DEL EUSKARALDIA EN EL AYUNTAMIENTO Y EL MUNICIPIO

Fueron las y los ciudadanos de cientos de localidades de Euskal Herria (225.000) quienes participaron en la 1ª edición del Euskaraldia que se llevó a cabo del 23 de noviembre al 3 de diciembre de 2018, con el impulso de las instituciones públicas y los agentes sociales.

En Elgoibar también participaron directamente 1.804 personas, bajo los roles "ahobizi" y "belarriprest", y fueron numerosas las entidades (52) que promovieron esta iniciativa.

Se realizó una valoración positiva de la primera edición, tanto de la participación, como de la incidencia que tuvo esta iniciativa en el uso del euskera.

En este momento, se encuentran en marcha las tareas de organización de la segunda edición del Euskaraldia, con una novedad importante: además de las personas individuales, las entidades también podrán participar directamente, impulsando la creación de "Ariguneak" dentro de la entidad.

El Euskaraldia es un ejercicio social para pasar de estar a favor del euskera a hablar más en euskera. Concretamente, el lema de esta edición es "Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan". Y para que aumente el uso del euskera, se considera indispensable que también se hable en euskera cuando se está en grupo. Esto es, los grupos tienen gran incidencia en la elección y en el uso individual de la lengua. Más aún, si consideramos que pasamos muchas horas del día en grupo: centros de trabajo y escolares, asociaciones, bares y comercios... Por todo ello, las personas individuales celebraremos el Euskaraldia, no solo de modo individual, sino también colectivo: en los entornos en los que



Elgoibarren, dagoeneko, abian da Euskaraldia Taldea, eta abian da, halaber, ekimena herriko entitateetan aurkeztuko dutenen sarea.

Horregatik guztiagatik, honako hau adierazten dugu:

### ERAKUNDE ADIERAZPENA

- Elgoibarko Udalbatzak bat egiten du Euskal Herri osoan zehar bideratuko den Euskaraldiarekin, 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra, eta ekimenaren sustatzaile izango da Elgoibarko Euskaraldia taldearekin batera. Horrenbestez, erantzukizunez eta eredugarritasunez jokatzeko konpromisoa hartzen du.
- Elgoibarko Udalak, entitate gisa, Euskaraldian izena emango du, horretarako beharrezko ariguneak identifikatuz eta bultzatuz.
- Udalkide, herritar eta herriko eragileei dei egiten diegu urtean zehar izango diren prestaketa-lanetan parte har dezaten eta, bere garaian, ahobizi eta belarriprest izan daitezten eta ariguneetan parte har dezaten.
- Ordezkaritza politikoen egiteko nagusia izango da Euskaraldiaren markoan eta bereziki Udalean eta Udalaren ardurapeko entitateetan ekimena zabaltzea. Horrenbestez, ekimen honetan ahalik eta arigune gehien, eta "ahobizi" eta "belarriprest" gehien aktibatzekeko urratsak emango ditugu, arduradun politikoak izan nahiz langileak izan.
- Elgoibarko Udalak neuriak hartuko ditu hizkuntza-praktika horiek posible

participamos en el día a día, en los "Ariguneak" de la localidad.

En Elgoibar, ya está en marcha el grupo motor del Euskaraldia, así como, la red de personas que presentará la iniciativa a las entidades locales.

Por todo ello, realizamos la siguiente

### DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

- El Pleno del Ayuntamiento de Elgoibar, junto con el Grupo Motor del Euskaraldia de Elgoibar, se adhiere al Euskaraldia que se va a desarrollar a lo largo de todo Euskal Herria, del 20 de noviembre al 4 de diciembre de 2020. Por tanto, adquiere el compromiso de actuar con responsabilidad y ejemplaridad.
- El Ayuntamiento de Elgoibar, a modo de entidad, se inscribirá en el Euskaraldia de Elgoibar, identificando e impulsando los "Ariguneak" que sean precisos para ello.
- Hacemos un llamamiento a las y los componentes del Ayuntamiento, a la ciudadanía y a las y los agentes locales para que participen en las tareas de preparación que se llevarán a cabo durante el año, y a que se identifiquen con los roles de "ahobizi" y "belarriprest", con el fin de que puedan participar en los "arigunes".
- La tarea principal de las y los representantes políticos será la de difundir la iniciativa que se va a desarrollar dentro del marco del Euskaraldia, en el Ayuntamiento y en sus entidades autónomas. Por ello, va a dar los pasos necesarios para activar el mayor número posible de "arigunes", "ahobizi" y "belarriprest" entre las y los responsables políticos y trabajadores.
- El Ayuntamiento de Elgoibar adoptará



<p>izan daitezen eta praktika horiei etorkizunean eutsi ahal izateko.</p>	<p>medidas para posibilitar esas prácticas lingüísticas y para poder seguir manteniendo dichas prácticas en el tiempo.</p>
---	--